


IKASKETA PROZEASUA GELAN MODU KOOPERATIBOAN EGITURATZEKO ESKU-HARTZE EREMUAK

(Pujolàs P. "9 Ideas Clave para el Aprendizaje Cooperativo". Graó, 2008)



TALDE LANA IKASTEKO BALIABIDE GISA: EGITURA KONPLEXUAK: ezaugarriak, aukerak, arriskuak eta erregulaziorako gakoak

Izena eta jatorria	Antolaketa-ezaugarriak eta urratsak	Funtzionamenduko logika nagusia	Zertarako dira egokiak? Berezko aukerak	Balizko arazoak, arriskuak	Irakaslearen erregulaziorako gakoak
<p>1. “JIGSAW” -Puzzlea edo buruhausgarri teknika-</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 6ko taldeak. Ikasteko materiala taldekide guztien artean zatituko du irakasleak. ▪ Ikasle bakoitzak bakarka ikasten eta prestatzen du bere zatia. ▪ Zati berdineko talde ezberdinetako espezialistak biltzen dira bere zatiaz mintzatzeko. ▪ Ikasleak euren taldera itzuliko dira eta partaide bakoitzak bere zatia azaltzen du 	<p style="text-align: center;">Osaketa lanaren logika.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Proiektuak eraikitzeko. ▪ Kasu konplexuen ebazpenerako. ▪ Ikasgaiak ikuspegi anitzak dituen kasuetarako. ▪ Elkardependentzia positiboa indartzeko. <p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Talde barnean izan beharreko erantzukizun pertsonala. ▪ Komunikazio eraginkorra. ▪ Asertibitatea. ▪ Sintesirako gaitasuna. ▪ Hausnarketa pertsonala. ▪ Loturak egiteko gaitasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Osaketa eskasa edo desorekatua. ▪ Sintesi artifizial eta aspergarriak. ▪ Gehiegiko ekoizpenak. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Osaketa egokirako baldintzak sortu: <ul style="list-style-type: none"> • Denboraren kudeaketa egokia egin, batera-jartzeko nahiko denbora eskainiz. • Txostenak edo ebidentziak ekoizten direla segurtatzea. • Osaketarako euskarriak eta baliabideak eskaintzea (ohiko azalpenez gain, txostenak, wikiak, mudle plataforma...). ▪ Ekoizpenen neurri egokia zaindu.
<p>2. “LEARNING TOGETHER” (Johnson & Johnson, Minnessota, EEBB)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gela guztiak ikasi behar duen unitate bat taldeka ikasiko dute ikasleek, taldeak bere baitan dituen errekurtoeie esker. ▪ Azterketa bakarka egingo dute eta taldekideen puntuazioaren batz bestekoarekin taldeko media lortzen da. ▪ Talde heterogeneoak hobesten dira. 	<p style="text-align: center;">Elkarrekintzaren logika.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkardependentzia positiboa indartzeko. ▪ Talde barnean izan beharreko erantzukizun pertsonala lantzeko. ▪ Aniztasuna kontuan hartzeko. <p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Talde barnean izan beharreko erantzukizun pertsonala lantzeko. ▪ Besteak onartzea eta balioestea. ▪ Komunikazio eraginkorra indartzeko. ▪ Elkartasuna lantzeko. ▪ Plangintza egiteko gaitasuna. ▪ Loturak egiteko gaitasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lanaren banaketa desorekatua. ▪ Laguntza gidatuegiak (“didaktika transmisiboeziak” taldeen baitan). ▪ Talde lanak bakarkako gogoeta eta lana itotzea. ▪ Alferkeriarako arriskua. ▪ Gatazkarako arriskua. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bere bideratzaile lanaren intentsitatea zaindu (taldeei eskaini nahi dien autonomia mailarekin koherentzian). ▪ Kontsigna argiak eman, guztion arreta bereganatu duela segurtatuz. ▪ Behaketa fina eta sistematikoa egin, taldekide bakoitzak bere lana egiten duela segurtatzeko eta guztien aurrerapenaz jabetzeko. ▪ Taldeen dinamizazio egokia segurtatu (rol banaketa...). ▪ Gatazkaren prebentzioa eta kudeaketa egin.

<p>3. “GROUP INVESTIGATION” (Sharan eta Sharan, Tel Aviv, Israel)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gelaren antolaketa orokorra ukitzen duen teknika. ▪ 2tik 6 ikasle bitarteko taldeak antolatatu. ▪ Ikasi beharrekoa azpi-gaietan zatitu (zenbat talde, hainbat zati edo azpi-gai) eta talde bakoitzari dagokion egin beharrekoa azaldu. ▪ Gaiak zoriz, hautaketaren bidez edo irakaslearen iritzia araberana bana daitezke. ▪ Talde bakoitzak, gaia landu, jorratu, ikasi... ondoren, txosten bat egingo du gela osoarekin partekatuz. ▪ Guztiok guztia ikastera iritsi behar dute. 	<p>Osaketa eta elkarrekintzaren logika.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Proiektuak eraikitze. ▪ Kasu konplexuen ebazpenerako. ▪ Elkardependentzia positiboa indartzeko. <p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikazio eraginkorra. ▪ Elkarrekintza. ▪ Sintesirako gaitasuna. ▪ Atertibitatea. ▪ Entzute aktiboa. ▪ Loturak egiteko gaitasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Osaketa eskasa edo desorekatua eta, ondorioz, bakoitzak bere atala bakarrik ikastea. ▪ Gehiegizko ekoizpenak. ▪ Alferkeriarako arriskua. ▪ Gatazkarako arriskua. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Osaketa egokirako baldintzak sortu: <ul style="list-style-type: none"> • Denboraren kudeaketa egokia egin, batera-jartzeko nahiko denbora eskainiz. • Osaketarako euskarriak eta baliabideak eskaini (ohiko azalpenez gain, txostenak, wikiak, mudle plataforma...). ▪ Ikasle bakoitzaren inplikazioa eta aurrerapenak baloratzeko behaketa sistematizatu. ▪ Gatazken prebentzioa eta kudeaketa egin.
<p>4. “CO-OP CO-OP” (S.Kagan)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Talde heterogeneoak sortzen dira, motibazioa pizteko ariketak egin ondoren. ▪ Taldea “egiten” den bitartean, kooperazioa eta komunikazioaren inguruko trebetasunak lantzen dituzte. ▪ Taldeak aztertuko duen gaia aukeratzen da, beste taldeko lanekin gaiaren osotasuna lortuko delarik. ▪ Taldekoek gaia azpi-gaietan banatzen dute hauek ere euren arteko osotasuna bilatuz. ▪ Beraz, ikasle bakoitzak azpi-gai bat aztertzen eta sakontzen du, bertan espezialista bilakatuz. Bere erara antolatuko da eta bere kabuz bilatuko du beharrezko materiala. ▪ Kideen arteko (lehenik) eta taldeen arteko (ondoren) loturak egingo dituzte, guztiak gaiaren muina barnertzeko. ▪ Taldeak gela osoaren aurrean emango duen aurkezpena prestatuko du. ▪ Ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Taldeari egindako bakarkako aurkezpenak (taldeko kideek). • Taldeak gelari egindako aurkezpenak (gelak). • Bakarkako lana (irakasleak). 	<p>Osaketaren eta autonomiaren logika.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Motibazioa lantzeko. ▪ Aniztasuna kontuan hartzeko. <p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Autonomia. ▪ Ekintzaitasuna. ▪ Alternatibak planteatzea, baloratzea eta hautatzea. ▪ Plangintza egiteko gaitasuna. ▪ Erabakiak hartzea. ▪ Hausnarketa pertsonala. ▪ Loturak egiteko gaitasuna. ▪ Sintesirako gaitasuna. ▪ Komunikazio eraginkorra. ▪ Atertibitatea. ▪ Entzute aktiboa. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Giroaren eta ekintzaren “barreiatze” efektua. ▪ Osaketa eskasa edo desorekatua eta, ondorioz, bakoitzak bere atala bakarrik ikastea. ▪ Koherentziarik gabeko ikaskuntza. ▪ Ia kontrolrik gabeko “aktibismoa”. ▪ Denboraren aprobetxamendu eskasa. ▪ Berez ekimenerako gaitasun ahula duten ikasleak “galtzea”. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Osaketa egokirako baldintzak sortu: <ul style="list-style-type: none"> • Denboraren kudeaketa egokia egin, batera-jartzeko nahiko denbora eskainiz. • Osaketarako euskarriak eta baliabideak eskaini (ohiko azalpenez gain, txostenak, wikiak, mudle plataforma...). ▪ Barreiatze efektua ekiditeko, loturak egiteko unak eta ekimenak bereziki zaindu eta indartu. ▪ Premia gehien dutenei laguntza pertsonala eskaini.

<p>5. “SCRIPTED COOPERATION” -Kooperazio gidatua- (A. O'Donnel eta D. Danserau)</p>	<p>LEHEN FASEA</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakasleak ikasgai edo testua azalduko du, berezko zentzua duten ataletan zatituta. ▪ Bikoteka antolatuko dira ikasleak. ▪ Bikoteko bi kideek bakarka irakurriko dute testuaren lehen atala. ▪ A ikasleak B-ri ahoz azalduko dio ulertu duena eta honek, entzute aktiboa baliatuz, feedbacka emango dio A-ri, balizko erraketak zuzenduz. ▪ Ondoren, B ikasleak egingo dio bere azalpena Ari eta honek feedbacka eman. <p>BIGARREN FASEA</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkarrekin adostuko dute informazio esanguratsua nola prozesatu, ongi barneratua gera dadin (mapa kontzeptuala, eskema, laburpena, adibide multzoa...). ▪ Testuaren bigarren zatia irakurtzen da eta aurretik deskribatu ditugun urratsak jarraituko dira. ▪ Behin testuaren atal guztiak landuta eta mapa edo eskema eginda, ikasleak berriz elkartuko dira (bikoteka edo 6ko taldeetan), testu osoaren behin betiko eskema, mapa kontzeptuala edo laburpena adosteko eta ekoizteko. ▪ Ebaluazioa taldeka egin daiteke, edo froga idatzi bat jarri, ikasitakoa egiaztatzeko... 	<p>Elkar entzutearen eta laguntzearen logika</p>	<p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Entzute aktiboa. ▪ Talde adostasunaren lanketa. ▪ Hausnarketa pertsonala. ▪ Sintesirako gaitasuna. ▪ Komunikazio eraginkorra. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lehiarako edo konfrontaziorako arriskua. ▪ Gelako dinamikaren kontrola galtzea. ▪ Zenbait kideren inhibizioa. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Denboraren kudeaketa egokia egin. ▪ Kontsigna zehatzak eta argiak eman, guztion arreta bereganatuta duela segurtatuz. ▪ Gatazkaren prebentzioa eta kudeaketa egin. ▪ Ekoizpenen kudeaketa eta kontrola.
<p>6. “TEKNIKA KONBINATUA”</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Talde kooperatibo heterogeneoak sortu. ▪ Taldekide bakoitzari, taldean ikasi beharreko guztiaren zati bat ematen zaio. ▪ Bakoitzak ikasitakoa taldearen esku jarri, osaketa egin eta ekoizpen bateratua elaboratu. ▪ Ekoizpenen arteko lehiaketa antolatu. ▪ Bakarkako errendimendurako testa ere prestatu eta talde puntuaketa bakoitzarenak ere eragin dezala... 	<p>Bakarkako lana, lan kooperatiboa eta lehiaren arteko konbinaketa.</p>	<p>Ikus JIGSAW eta “LEARNING TOGETHER” teknikei buruz idatzitakoa.</p>	<p>Ikus JIGSAW eta “LEARNING TOGETHER” teknikei buruz idatzitakoa.</p>	<p>Ikus JIGSAW eta “LEARNING TOGETHER” teknikei buruz idatzitakoa.</p>

TALDE LANA IKASTEKO BALIABIDE GISA: EGITURA SINPLEAK: ezaugarriak, aukerak, arriskuak eta erregulaziorako gakoak

TESTUEN ULERMENA LANTZEKO ESTRATEGIAK Ferreiro,R. (2006) <i>Estrategias didácticas del aprendizaje cooperativo</i> México . Trillas					
Izena eta jatorria	Antolaketa-ezaugarria eta urratsak	Funtzionamendurako logika nagusia	Zertarako dira egokiak? Berezko aukerak	Balizko arazoak/ arriskuak	Irakaslearen erregulazio gakoak
<p>7. “CONCORDAR-DISCORDAR” -Bat etorri-bat ez etorri- (R. Ferreiro)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasleengan hausnarketa eragingo duten zenbait esaldi (enunziatu) motz aurkeztu ikasleei, idatziz - gutxienez 10 eta gehienez 20 esaldi motz-. ▪ Lehenengo, bakarka egingo dute lan. Ikasleak esaldi horietan esaten denarekin bat datorren ala ez erabakiko du. ▪ Ondoren, taldeka -gehienez ere, 4 kidez osatutako taldeak- eztabaidatuko dute aipatutako esaldien edukia eta talde-erantzun bat adostuko dute. 	<p>Bakarkako lana eta lan kooperatiboaren erkaketa elkar entzutearen eta adostearen logikari helduta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrezagutzak aktibatzeke. <ul style="list-style-type: none"> ✓ Talde kohesioa lantzeko. ✓ Motibazioa pizteke. ✓ Aniztasuna kontuan izateke. ✓ Kasu komplexuen ebazpenerako. ✓ Ikasgaiak ikuspegi anitzak dituen kasuetarako... <p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikazio eraginkorra <ul style="list-style-type: none"> ✓ Entzute aktiboa. ✓ Hizketa bilatzailea. ▪ Hausnarketa pertsonala. ▪ Talde hausnarketa ▪ Talde-adostasunaren lanketa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Talde lanak bakarkako hausnarketa itotzea. ▪ Gatazkarako arriskua. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Estrategia honen arrakastaren gakoak: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Esaldiak (enunziatuak) zehatzak eta motzak izatea. ✓ Erredakzioan planteatzen denaren egitasuna baliogabetzen duten zenbait termino agertzea; adibidez: <i>beti, garrantzitsuena, inoiz ez...</i> ✓ Ariketa ikasle bakoitzari eta guztiei idatziz ematea. ✓ Ikasleek bakarka erantzun dezaten denbora nahikoa ematea. ✓ Talde lanean aritzeko eta talde-erantzun adostu bat eman dezaten eskatzea. ✓ Gatazkararen prebentzioa eta kudeaketa.
<p>8. “PREGUNTAS SON PREGUNTAS” -Galderak, beti galdera- (R. Ferreiro)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bata bestearekin lotuta dauden galdera sorta bat planteatzen zaie ikasleei (ikasleek ez dute zertan galderen erantzuna ezagutu behar). ▪ Galdera horiei emandako erantzunen bidez, landuko den gaiaren gaineko hausnarketa bultzatzea da helburu nagusia; horretarako: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Lehenengo, banaka erantzungo diete planteatutako galderari. ✓ Ondoren, bikoteka edo talde txikitan, banaka emandako erantzunak partitu eta talde-erantzuna osatuko dute. 	<p>Bakarkako lana eta lan kooperatiboaren erkaketa elkar entzutearen eta osaketaren logikari helduta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrezagutzak aktibatzeke. <ul style="list-style-type: none"> ✓ Talde kohesioa lantzeko. ✓ Motibazioa pizteke. <p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikazio eraginkorra <ul style="list-style-type: none"> ✓ Entzute aktiboa. ✓ Hizketa bilatzailea. ▪ Hausnarketa pertsonala. ▪ Talde-adostasunaren lanketa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Denboraren kudeaketa ▪ Parte hartzea eta inplikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Denboraren kudeaketa egokia egin. ▪ Kontsigna zehatzak eta argiak eman, guztion arreta bereganatuta duela segurtatuz.
<p>9. “LAS CINCO FELICES COMADRES” -Bost galdetsu zoriontsuak- (R. Ferreiro)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Prozesatzen ari diren informazioaren gainean, errealitatea ezagutzeko ezinbesteko bost galdera logikoei erantzuna eman diezaieten eskatuko zaie ikasleei: <i>zer</i> (ikaste-objektuaren izaerari lotua); <i>zergatik</i> (kausak, oinarria edo justifikazioak ezagutzeko); <i>zertarako</i> (ondorioak, 	<p>Bakarkako lana eta lan kooperatiboaren erkaketa, osaketaren logikari helduta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Testuaren informazioak elkartrukatzea ▪ Sekuentziaren garapenean, informazioa lantzeko. ▪ Proiektuak lantzeko ▪ Elkarrekiko dependentzia positiboa indartzeko 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Denboraren kudeaketa ▪ Parte hartzea eta inplikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Denboraren kudeaketa egokia egin. ▪ Kontsigna zehatzak eta argiak eman, guztion arreta bereganatuta duela segurtatuz. ▪ Ekoizpenen kudeaketa eta kontrola.

	<p>erabilgarritasuna, onurak ikusteko); <i>nola</i> (prozeduraz, prozesuaren faseez, egin behar denaz hitz egiten digu); eta <i>noiz-non</i> (ikaste-objektua espazioan eta denboran kokatzeko).</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hiru modutara egin daiteke: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Talde natural bakoitzak bost galderari erantzungo die, talde-barruan lan banaketa egin. ✓ Aditu taldeak osatuz, talde bakoitzak galdera bati emango dio erantzuna, ondoren, aditu bakoitzak bere taldera eramanez galdera bakoitzaren erantzuna eta talde naturalean bost galderen erantzunak osatuz. ✓ Talde natural bakoitzak galdera baten erantzuna bilatzen du eta, talde handian, erantzun guztiak elkar-jarriz, bost galderen erantzunak osatzen dira. 		<p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazioaren ulermena. ▪ Hausnarketa pertsonala ▪ Sintesirako gaitasuna 		
<p>10. “AFIRMAR-PREGUNTAR” -Baieztatu-galdetu- (R. Ferreira)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Testu batek eskaintzen duen informaziotik abiatuta, baieztapenak sortzea eta testuan erantzun zuzenik ez daukaten galderak formulatzea: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikaste objektuari dagozkion ahalik eta baieztapen gehien sortu. ✓ Ikaste objektuari dagozkion ahalik eta galdera gehien formulatu. ▪ Hasteko, bakarkako lana egin. ▪ Behin bakarkako lana eginda, taldean eztabaidatu eta osatu baieztapen-galderak. ▪ Taldean adostutako baieztapen-galderekin rotafolio orriak presta daitezke (batean baieztapenak, beste batean galderak) ▪ Prestatutako kartelak gelako hormetan jarrita, <i>Expo</i> teknika aplika daiteke: talde natural bakoitzak aukeratutako kide batek “gidar” lana egiten du, zeinak gainontzeko gelakideei bere taldeak sortutako baieztapen eta galderak aurkezten dizkien. ▪ Erantzun gabe geratu diren galderari beste momentu batean hel dakieke, talde handian eta irakaslearen esku-hartzea tarteko, horien erantzunak osatzeko. 	<p>Bakarkako lana eta lan kooperatiboaren erkaketa, osaketaren logikari helduta</p>	<p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazioaren ulermena. ▪ Hausnarketa pertsonala ▪ Sintesirako gaitasuna ▪ Sekuentziaren garapenean, informazioa lantzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Denboraren kudeaketa ▪ Parte hartzea eta inplikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lana bideratuko da ikasleek, lehenengo, baieztapenak egin ditzaten eta, ondoren, galderak: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Baieztapenak: <ul style="list-style-type: none"> .- Orainaldian egindakoak (ez iraganean, ez etorkizunean) .- Positiboan egindakoak .- Argiak, zehatzak eta ahalik eta motzen formulatuak. .- Egiten duenaren iritzia islatzen dutenak, bere sinesmenak eta baloreak ✓ Galderak: <ul style="list-style-type: none"> .- Modu argian planteatuak .- Zehatzak .- Ikaste-objektuari dagozkionak. ▪ Talde bakoitzak sortzen dituen baieztapenak zein galderak 5 eta 8 bitartean izatea komeni da. ▪ Hausnarketa-unean zera galdetu: zer izan da errazagoa, baieztapenak sortzea ala galderak formulatzea? Zergatik?

<p>11. “HACER OSOS” (Oraciones Significativas Originales) -Eeo! (Esaldi esanguratsu originalak) egitea- (R.Ferreiro)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasleak lantzen ari diren testu baten gainean, hark ematen duen informazioa baliatuta, esaldi esanguratsu originalak sortzea. ✓ Esaldi motzak, orainaldian idatziak, enuntziatu tipiko baten osagai guztiekin hornituak. ✓ Esaldi esanguratsuak, ikaslearentzat testuan agertzen den informaziorik garrantzitsuen biltzen dutelako. ✓ Esaldi originalak, ikaslearen hitzetan formulatu behar direlako, eta ez testua sortu duen autorearen hitzetan. ▪ Lehenengo bakarka sortu eta, ondoren, taldean partituko dituzte Eeo!ak, horien gaineko hausnarketa komuna eginez, taldeko Eeo!ak aukeratzeko. 	<p>Bakarkako lana eta lan kooperatiboaren erkaketa, osaketaren logikari helduta</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Sekuentziaren garapenean, informazioa lantzeko. ▪ Elkarrekiko dependentzia positiboa lantzeko. <p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazioaren ulermena / azterketa / hautaketa. ▪ Hausnarketa pertsonala ▪ Erabakiak hartzea ▪ Sintesirako gaitasuna ▪ Abstrakzio gaitasuna ▪ Orokortze gaitasuna 	<p>Denboraren kudeaketa Parte hartzea eta inplikazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Denboraren kudeaketa egokia egin. ▪ Kontsigna zehatzak eta argiak eman, guztion arreta bereganatuta duela segurtatuz. ▪ Ekoizpenen kudeaketa eta kontrola. ✓ Ikasleei eskatzen zaizkien Eeo! kopurua testuaren luzerarekin proportzioan egongo da. Orokorrean, orrialde bakoitzeko, bizpahiru Eeo! eska daitezke.
<p>12. “KONTZEPTUEN DEFINIZIO ERAGINKORRA”</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Definizio objektua ulertuta, zientifikoki edo, gutxienez, logikaren bidez, kontzeptua definitzeko estrategia. Talde txikitik egitekoa, hiru urratsen bidez: ✓ Determinatzailea (kategoria) zehaztu: determinatzaileak <i>zer da?</i> galderari erantzuten dio. Zenbait kontzeptuk determinatzaile edo kategoria anitz onartzen dute (ad: <i>txakurra</i> definitzeko esan dezakegu: <i>animalia</i> dela, baina baita, esan dezakegu, <i>izaki biziduna, ugaztuna, lauoinekoa...</i> dela). - Determinatzailea zehazteko, brainstorming-a edo ideia zaparrada egitea komenigarri da, ondoren, egokiena aukeratu ahal izateko. ✓ Ezaugarriak zerrendatu: ezaugarri horiek <i>nolakoak da?</i>, <i>zerk egiten du den bezalakoak izatea eta ez beste modu batekoa?</i> galderari erantzuten diete (ad: esan dezakegu mahaia altzari bat da (determinatzailea), baina determinatzaile horrek beste hainbat kontzeptuk dute komunean –aulkiek, liburutegiekin...-, beraz, ezaugarritu 	<p>Bakarkako lana eta lan kooperatiboaren erkaketa, osaketaren logikari helduta</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Sekuentziaren garapenean, informazioa lantzeko. ▪ Kontzeptuak logikoki edota zientifikoki definitzeko. <p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Objektuen gaineko kontzeptua modu egokian adierazi. ▪ Zehaztasun eta zorrotzasunaz pentsatzea. 	<p>Denboraren kudeaketa Parte hartzea eta inplikazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kontsigna zehatzak eta argiak eman, guztion arreta bereganatuta duela segurtatuz. ▪ Estrategia honen aplikazioaren hastapenetan, kontzeptuaren definizioa eskatzerakoan, bere hiru osagarriak espresuki aipatu. ▪ Beharrezko maiztasunaz aplikatuz gero, ikasleek prozedura harrapatuko dute. Hori horrela denean, talde txikitik bakarkako lanera pasa. ▪ Behin prozesura barneratuta, alde aurretik idatzi gabeko ahozko definizioak eskatu ikasleei.

	<p>egin beharko dugu –<i>mabaia lau banka eta gainalde lau bat daukan altzaria da</i>-). Zenbat eta ezaugarri gehiago zerrendatu, orduan eta hobeto definituko dugu kontzeptua.</p> <p>.- Ezaugarriak zerrenda luze batean jarriko ditugu (ideien zaparrada) eta, ondoren ezaugarri bereizgarrienak aukeratuko ditugu.</p> <p>✓ Osagarria adierazi: osagarriak definituko dugun objektuaren erabilgarritasuna, garrantzia edota funtzioak adierazten ditu. <i>Zergatik eta zertarako?</i> Galderari erantzuten die (ad: <i>aulkia lau banka, eserleku bat eta atzalde bat edukia, esertzeko balio duen altzaria da</i>)</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Behin estrategia barneratzen hasita, talde txikietatik lan indibiduala egin. ▪ Ikasle guztiek estrategia bereganatu dutenean, kontzeptua ahoz defini dezaten eskatu, aldeztu aurretik definizioa idatzi gabe. 				
<p>13. “EXPONER Y PREGUNTAR” -Azaldu eta galdetu- (R. Ferreira)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasle bati -edo talde bati- eskatu ikasten ari denaren azalpen txiki bat egin dezan/dezaten. ✓ Ezagutzaren sistematizazioa ahalbidetu aurrezagutzak ezagutza berriekin lotuz. ▪ Saioaren hasieran, garapenean edota bukaeran irakasleak galdera sorta bat egiten die ikasleei, ikasten ari direnaz hausnartzeko. ✓ Galdera batzuk irekiak: <i>Zer landu duzu gaur? Zer ikasi duzu?...</i> ✓ Beste galdera batzuk, zehatzagoak: <i>Zer da ikasi nahi/ behar duguna?</i> 	<p>Bakarkako lana eta lan kooperatiboaren erkaketa, osaketaren logikari helduta</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasitakoaren gaineko hausnarketa. ✓ Ikasitakoa gogora ekarri. ✓ Ideien arteko loturak egin. ✓ Ezagutza sistematizatu. <p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hausnarketa pertsonala ▪ Sintesirako gaitasuna ▪ Abstrakzio gaitasuna ▪ Orokortze gaitasuna 	<p>Parte hartzea eta inplikazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakasleak erreferentziazko marko bat eskaintzen die ikasleei, euren ezagutza egitura dezaten. ▪ Galderak egiteko garaian kontuan hartu: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Galderak aldeztu aurretik prestatu. ✓ Taldeari planteatu galdera; segundo batzuk eman eta erantzunaren zain gelditu. ✓ Erantzuna eskatu; beharrez gero, galdera errepikatu. ✓ Galdera modu argian eta tonu egokian planteatu. ✓ Erantzuna emateko prest dagoen ikasle bati eskatu erantzuna. ✓ Guk espero genuen erantzuna jaso ezean, ikasleak emandako erantzunetik zerbait hautatu eta hortik tiratu. ✓ Ikasleen balizko ezjakintasuna inoiz ez agerian utzi. ✓ Galderak ezin du ikaslea ezustean harrapatu, ez baita estutze bide bat.

<p>14. “OTRAS ESTRATEGIAS DE RECAPITULACIÓN” -Ikasitakoaren gainean hausnartzeko beste estrategia batzuk- (R. Ferreiro)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurreko saioetan edota bukatzen ari garen saioan ikasi dugunaren gaineko hausnarketa bideratzeko zenbait estrategia: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Aplikatu dezakegun edo sakondu behar dugun alor bat gogoratu eta idatzi edo ahoz adierazi. ✓ Saioaren gaineko ahozko laburbilketa bat egin. ✓ Landutako gaiak zerrendatu, koadernoaren laguntzarekin –edo gabe–. ✓ Landutakoaz ikasitako guztia idatzi. ✓ Ezagutzen dugun norbaiti posta elektronikoz bidaltzeko testua egin (berari ikasitakoa azalduz). ✓ Ikaslea ezkertia bada eskumarekin edo eskuina bada, ezkerrearekin, ikasitakoaz idatzi (helburua: trebatuta ez duen eskuarekin idazten saiatzean, idatziko duenaz pentsatzeko denbora har dezan). ✓ Marrazki, esaldi, gorputz-mugimendu, sinbolo edota keinuen bidez ikasitakoa adierazi. ✓ Ikasitakoaz edota ikasitakoaren atal batez pentsatzen duzuna idatzi. ✓ Era honetako esaldiak osatu: “<i>gustura geldin naiz...</i>” edo, “<i>... zelan?za dankat</i>”. ✓ Ikasitakoaz edota ikasitakoaren atal batez, kideen arteko elkarrizketa bat egin. 	<p>Bakarkako lana Komunikazioa eta sormena.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasitakoaren gaineko hausnarketa. <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikasitakoa gogora ekarri. ✓ Ideien arteko loturak egin. ✓ Ezagutza sistematizatu. <p>Modu naturalean lantzen diren kompetentzia orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hausnarketa pertsonala ▪ Sintesirako gaitasuna ▪ Abstrakzio gaitasuna ▪ Orokortze gaitasuna 	<p>Parte hartzea eta inplikazioa Teknika bakoitza erabiltzeko une egokia identifikatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Alderdi kognitiboaren eta afektiboaren lotura adierazten duten estrategiak erabili (ad: euren bihotza marraz dezaten eskatu eta, bihotzaren barruan idatz dezaten, egun horretan ikasitakoaren zer atal geratu zaien bihotzean). ▪ Ariketa motzak planteatu (3-5 minutu). ▪ Ariketen aniztasunak ezustean harrapatu behar ditu ikasleak (ez dago gaizki ariketaren bat errepikatzea –gehien gustatu zaiena, emaitza onenak eman dituen...-) ▪ Ikasitakoaren gaineko hausnarketa, errepikapen bat da, ikasten ari dena esanguratsuki memorian itsasteko baliagarri izan behar duen ariketa; hori dela eta, errepikapen desberdina behar du izan, alderdi ludikoan arreta jarritz.
---	---	---	--	---	---